




DIPUTATU NAGUSI KARGUAREN JATORRIA

(M. Camino Urdiain. Historian Lizentziatua. Biltzar Nagusietako dokumentalista)



1476an Errege-erregina Katolikoek Gaztelako erresumako Ermandade Santua sortu zuten Madrigalgo Gorteetan.

Benetako polizia talde bat zen, hau da, gaizkileen kontra lan egiten zuen eta merkatari eta bidaiaren zirkulazio askea bermatzen zuen. Talde honen inguruko araudia hamaika atalburutan jaso zen, Henrike IV.ak landu zituen aurreko araudien ildoari jarraiki, baina aurrerapen handiak erantsiz¹: justiziaren objektibotasuna eta salatutako pertsonen bermea, hain zuzen.

Ermandade Nagusiaren Ordenantzetan xedatutakoaren arabera, probintzia bakoitzean Epaille Betearazle bat izendatu behar zen eta hari zegokion probintzia osoaren kontrola².

Arabako Ermandadea Ermandade Nagusira gehitu zen Bizkaikoa eta Gipuzkoakoarekin batera eta haren urteroko Biltzarrera ordezkari edo diputatu bat bidali zuten. Errege-erregina Katolikoak Ermandade Santuko Epaille Betearazleek zeuzkaten zeregin eta eskumen berak egotzi zizkien beren lurraldeetan jarduteko.

¹ MARTÍNEZ RUIZ, Enrique. “Algunas reflexiones sobre la Santa Hermandad”. Hemen: <http://revistas.ucm.es/ghi/02144018/articulos/CHMO9292110091A.PDF>

² RAYÓN VALPUESTA, Pedro. “El Diputado General de Álava en el s. XVI”. Hemen: Congreso Internacional sobre Sistemas de Información Histórica. 1997ko azaroaren 6-8a. Liburukia: Comunicaciones Libres. 355 orr.



Ermandade guztietako Biltzar Nagusiak Madrilen bildu ziren 1478an, Errege-erregina katolikoaren buruzagitzapean, Illescasen 1482an, Pinton 1483an eta Torrelagunan 1485ean.

Ermandadeetako koadrila eta konpainiek ordena publikoa berrezartzen arrakasta izan zuten arren, oso kostu ekonomiko altua eragiten zuten eta ondorioz, 1498an Ermandade Santua desegin zen eta Erresuma osoan Epaile Betearazle lana bertan behera utzi zen.

Arabako probintziak urte hartako urriaren 12an Gasteizko prokuradore zen Fernando Pérez de Añastro batxilerra bidali zuen Errege-erregina Katolikoei Arabako ermandade zaharretan jada existitzen ziren kargu ofizialak mantentzeko eskatzeko³ eta horrez gain, ordutik aurrera Ermandadeek diputatu bat eta eskribau bat izatea eskatu zien. Horrela mantendu zen diputatu nagusi kargua, hots, Probintziako Epaile Betearazle kargua.

Arabako Ermandadearen eskaera onartu zen 1498ko abenduaren 3ko Errege Probisioaren bidez⁴, diputatu nagusi eta epaile betearazleak errege ordezkari izan zuten 1499tik 1535era eta Arabako Ermandadearen gobernu organoen bileretan buru gisa jardun zuen, baita Biltzar Nagusietan eta Biltzar Berezian ere.

1499a baino lehen Gasteizko Kontzejua eta Arabako Ermandadeen artean konpromiso bat zegoen⁵ eta haren bidez, garai hartan diputatu nagusi zen Lope López de Ayalak kargua bizitza osoan mantendu ahal izan zuen eta

³ GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto. Op. Cit. 348 orr.

⁴ “aurrerantzean diputatu bat eta eskribau bat egon daitezela, biak gasteiztarrak izatea eta urtero hiriko biztanleek hauta ditzatela, ermandade horretako beste ofizialak hautatzen zituzten bezala”

⁵ Are gehiago, 1499an Diego Martínez de Álava diputatu nagusiorde izendatu zuten. Errege-erregina katolikoek 1499an erabaki zuten “*Lope Lopez de Ayala, gure nahiari jarraiki, Hiri eta Probintzia eta Ermandade honetako Diputatu izan dadila eta ondoren gure Epaile Betearazle izan dadila eta gero probintziako Diputatu eta ermandade horietako betearazle izan dadila Diego Martínez de Álava*”



haren ondorengoa Diego Martínez de Álava izan zen⁶

Diputatu nagusi ofizioa 1463ko Ordenantzen ostekoa izan zenez, Rayones adierazi zuenaren arabera⁷, *“ez litzateke ausartegia izango esatea diputatu nagusi kargua lortu nahi zutenek, ospe eta erantzukizun gehien zuen kargua izanik, Arabako Ermandadearen gainerako zereginetarako beharrezkoak ziren baldintza juridiko, ekonomiko eta moral guztiak bete behar zituztela”*, eta ildo horretatik, honakoa xedatzen zen:

“sean hombres honrrados e buenos e ydonios e pertenescientes e abonados cada vno en quantia de cinquenta mill marauedis e hombres syn parcialidad e syn aficion alguna, e tales que miren bien el pro comun de la dicha hermandad e de los hermanos della e la exsecucion de la justicia”

XVI. mendeko lehen herenean biziarteko diputatu nagusi izan ziren Lope López de Ayala⁸ 1505era arte eta Diego Martínez de Álava⁹ 1505etik 1533ra. Hala ere, azken horrek, izatez, diputatu nagusi zereginetan jardun zuen 1499tik. Hura hil zenean diputatu nagusiaren kargurako pertsona hautatzeko

⁶ GARCÍA FERNÁNDEZ, Ernesto. “Diego Martínez de Álava: Los primeros años de Gobierno del Diputado General de las Hermandades Alavesas (1499-1505). Hemen: Congreso Internacional sobre Sistemas de Información Histórica. 1997ko azaroaren 6-8a. Liburukia: Comunicaciones Libres. 345-354 orr.

⁷ RAYÓN VALPUESTA, Pedro. op. Cit. 360 orr.

⁸ J.J. Landázuri y Romaratek bere Historia Civil de Álava laneko II. Liburukiko 136 orrialdean eta hurrengoetan Lope López de Ayala aipatzen du lehenengo diputatu nagusi gisa, hala ere, egungo historialariek, esaterako, Jose Luis Orella Unzuek, Biltzar Nagusien Akten Transkripzioaren VII. Liburukiko hitzaurrean, “La formación de la provincia de Álava. Las instituciones alavesas en el siglo XVI. Oficiales de la Hermandad y miembros de la Junta. P. LIII” lanean dio 1477an **Alonso Lopes de Ayala** izeneko gizon bat izendatu zutela Gasteizko Probintziako diputatu Ermandade Santuko Biltzar Nagusietan .

Lope Lopez de Ayalak 1501ean utzi zuen kargua, 90 edo 95 urte zituela, Orilla Unzuek *“Las Instituciones políticas alavesas a través de sus actas”* lanean adierazi zuen bezala. Hemen: Congreso Internacional sobre Sistemas de Información Histórica. 1997ko azaroaren 6-8a. Liburukia: Ponencias y Mesas redondas”. Gasteiz: Arabako Biltzar Nagusiak, 1998.

⁹ Diego Martínez de Alavari buruzko bibliografia ugari dagoen arren, bere jarduera juridiko eta administratiboari dagokionez, interesgarria da Ernesto GARCÍA FERNÁNDEZ-en artikulua hau: *“El control de la gestión político-administrativa del Diputado General de Álava, Diego Martínez de Álava: el juicio de residencia de 1504”**. Hemen: Alonso Aldama, J. García Román, C., Mamolar Sánchez, I (eds), *ΣΤΙΣ ΑΜΜΟΥΔΙΕΣ ΤΟΥ ΟΜΗΡΟΥ Homenaje a la profesora Olga Omatos*. Argit. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2007, 241-256 orr. *Artikulu hori ikerketa proiektu honen parte da “Euskal Herriko hiriko gizartearen bilakaera eta garapena Bilbo, Gasteiz eta Donostiako hirien azterketaren bidez (XIV – XVII m.), 1/EHU 00156.130-H-14903/2002. Ikusi: <http://www.arcacomunis.uma.es/articulos/egfjuicio.pdf>

modua eta unearen inguruko gatazka piztu zen.

Diego Martínez de Álava 1533ko azaroaren 16an hil zen. Heriotza San Martingo Ohiko Biltzarren bilkura batean geratu zen. Bilkura haren etxean egin behar izan zuten haren osasun egoera ahulegia zelako. Hil ostean hiriko alkatea, erregidoreak, prokuradoreak eta diputatuak bildu ziren eta Martín Martínez de Ysunza gasteiztarra izendatu zuten, zehazki, urtebeterako hautatu zuten, Gasteiz eta Probintziaren artean diputatu nagusia nork hautatu behar zuen eta karguaren iraupenak zenbatekoa izan behar zuen erabakitzeko zituzten desadostasunak ebatzi bitartean, hain zuzen.



*Pero Martínez de Alavaren hilobiaren diseinua, Gasteizko San Pedro eliza.
(Valladolideko Kantzelaritzako agiritegia.
464 zkiko planoak eta marrazkiak)*

Hala ere, Probintziak ez zuen hautaketa onartu eta Pero Martínez de Álava hautatu zuen, hau da, hildakoaren anaia. Juan Martínez de Álavak eta Juan Ruiz de Vergarak ere (Peroren semea eta suhia, hurrenez hurren) kargua lortu nahi izan zuten.

Errege Kontseiluaren ebazpenaren zain zeuden bitartean, hau da, hautagaiek arrazoitutako eskubideak aztertzen zituzten bitartean, 1533ko abenduaren 24ko Errege Zedularen bidez, Erregetzak Martín Martínez de Bermeo izendatu zuen behin-behinean.

Azkenik, gatazka 1534ko konkordiaren arabera eta agiri hori Karlos V.ak 1535ean berretsi zuen. Juan de Zuazo izan zen agiria Gasteizera ekartzeaz arduratu zena eta Luis de Isunza eta Andrés Díaz de Esquivelekin batera,



maiatzaren 5eko lurralde jareen biltzarrean adierazi zuten errege gutun hartan jasotakoaren arabera, Martín Martínez de Bermeo jaunaren esku zegoen diputatu nagusi kargua bukatu zela eta diputatu nagusiak berak zera adierazi zuen: *“que a lo que a él tocava estaba cierto e presto concertándose hellos de hazer e conplir lo que mandasen çerça de la dexaçion del dicho ofiçio”*. Hala ere, zalantzak piztu ziren jarraitu beharreko prozesuaren inguruan eta ondorioz, Aguirre jaunari zer egin behar zen galdetzeko idatzi zion. Egia esan, beste norbait hautatzea atzeratzeko modu bat zen.

Azkenean, urte hartako uztailaren 6an Biltzar Nagusi bat egiteko deialdia egin zen eta Errege Pragmatikaren arabera jokatzera erabaki zen. Hori dela eta, diputatu berriak urtebetez mantenduko luke diputatu nagusi kargua, *“hurrengo Santa Katalina egunera arte”*, hain zuzen, eta ordutik aurrera karguaren iraupena bi urtekoa izango zen.



1670ko Gasteizko kontzejuko karguen
Juramenduen Liburuko
irudia. AMVG 8-22.

Xehetasun-irudi honetan
atabakaratze sistema ikus
daiteke



Eguna iristean, ezarrita zegoen bezala, sei Hautesle aukeratu ziren, hiru Probintziari zegozkion eta beste hiru Gasteizko hiriari. Lehenengo txandan Hautagaiak ez ziren adostasun batera iritsi, izan ere, *“hiruk pertsona bat izendatu zuten eta beste hiruek beste pertsona bat izendatu zuten”*, hori dela eta, *“atabakaratze”* sistemaren bidez egitea erabaki zen. Hau da, atabaka batean bola batzuk



sartzen ziren, bola bakoitzak hautagai bietako baten izena zioen paper bat zeukan barruan eta Ermandadearekin inolako loturarik ez zeukan pertsona bati eskatzen zitzaion bola bat ateratzeko.

Kasu honetan *“kartzelako zuzendariaren neska bat”* izan zen bola atera zuena, izan ere, bilera *“udalaren ganberan”* egin baitzen eta areto hori kartzela gisa ere erabiltzen zen eraikinean baitzegoen¹⁰. Bola atera ondoren, Andrés de Anda eta Diego Fernández de Ugarte eskribauei entregatu zitzaaien barruko papera atera zezaten eta hautatua Martín Martínez de Bermeo zela ikusi zuten. Zin egin ondoren, diputatu nagusi izendatu zuten.

Errege gutunean adierazitakoa betez, bere karguak 1537ko azaroko Biltzarrera arte iraun zuen. Orduan beste hautaketa bat egin zen hiria eta probintziaren 1534ko Itunean hitzartu zen bezala eta Luis de Isunza hautatu zuten.

Hiriak eta probintziak diputatu nagusia hautatzeko Ituna 1534ko urtarrilaren 28an sinatu zuten eta 1535ean berretsi zen. XIX. mendera arte egon zen indarrean eta honakoa xedatzen zuen:

- Diputatu nagusiak gasteiztarra izan behar zuen derrigorrez.
- Hautaketa azaroko Ohiko Biltzar Nagusien azken egunean egin behar zen.
- Hautaketa sei Hautesleren eskutik egingo zen, hiru Gasteizko hirikoak izango ziren (Hiriko Prokuradore Nagusia eta beste Erregidore bi) eta gainerakoak Probintziakoak izango ziren (Santa

¹⁰ Aktetan, normalean, biltzarra egin zen tokia “udalaren etxea” gisa aipatzen da, hau da, “udalaren etxeak eta aretoa”, etab. Hala ere, 1546ko azaroko biltzarrei dagokienez, *“kartzelaren etxean eta udalaren aretoan”* egin zirela adierazten da.

¹¹ PORRES, Rosario. “De la Hermandad a la Provincia (S.XVI-XVIII). Donostia: Editorial Nerea, 2003. 245 orr. Egilearen hitzetan, bi karguak oso botere handikoak ziren, izan ere, “erregidoreak udaletxeko dirua kudeatzen zutenak ziren eta prokuradorea hiriko pertsonaiarik bereizgarriena zen errepublika osoaren (Gasteiz), haren izen onaren, ohorearen, ogasunaren, bizitzaren, foruen, pribilegioen, askatasunen, salbuespenen, ohituren eta usadioen defendatzailea eta babeslea baitzen.



Katalinako Biltzar Nagusietara joandako prokuradoreek hautatua, azaroan)¹².

- Hautesleek bozketa egin ondoren hautagai biak berdinduta geratzen baziren, azken aukeraketa zoriaren esku uzten zen. Atabaka batean metalezko bola bi sartzen ziren. Bola bakoitzean diputatu nagusi karguko hautagaietako baten izena sartzen zen eta lehenbizi ateratzen zen izena zen hautatua.
- Karguak hiru urteko iraupena zuen. Titularra hilez gero, beste hautaketa bat egiten zen eta haren agintaldiak bere aurrekariaren agintaldia bete arte soilik irauten zuen.

Diputatu nagusiaren zereginak eta eskuduntzak asko izan ziren, honako hauek besteak beste:

- Ermandadearen Biltzarren, Biltzar Nagusien eta Biltzar Berezien deialdia egitea.
- Ermandadearen lurraldean Erregearen ordezkaria zen, baina Ermandadeari zegokion hura izendatzea. Erregearen ordezkari gisa, Ermandadearen Biltzarretako buru zen.
- Eskuduntza judizialak zeuzkan Ermandadearekin lotutako auzi zibil eta kriminaletan eta ematen zituen epaiei Erregearen edo haren Kontseiluaren aurrean soilik egin ziezaiekeen aurka. Ezin zien Ermandade alkateei beren jurisdikzioa kendu eta horien epaien apelazioetako epaile zen. Eskumen horiek gauzatzeko letratuen laguntza izaten zuen.
- Landa maisu eta komisario zen, hau da, gatazka kasuetan Erregeak tropak behar zituenean Araban errekrutatzen zirenen buru zen.
- Horrez gain, lurraldetik igarotzen ziren edo bertan ostatu hartzen

¹² XVI. mendeko bigarren erdian, aktetan “hautesleen hautesle” kargua aurkitzen dugu. Hau da, prokuradoreek prokuradore bat hautatzen zuten eta hark aukeratzen zituen probintziako hiru hautagaiak. (ALHA. Aktak. VII. Liburukia, 342 fol.)



zuten gerra-gizonak kontrolatzeaz arduratzen zen. Izatez, horrek Tokiko Ermandadeekin sarritan gatazkak eragiten zituen, izan ere, haien ostatua nahiz mantenua ordaindu behar baitzuten. Tropen buruaren izendapenak ere gatazkak eragin zituen Gasteizko hiria eta probintziaren artean 1496tik 1601era, izan ere, orduan izendapena Ermandadeko prokuradoreei zegokiela (eta ez Gasteizi soilik) erabaki baitzen.

Denbora joan ahala, Rosario Porres irakasleak adierazi zuen bezala, “*diputatu nagusiaren kargua oso kargu politiko-instituzional bitxia izan zen euskal lurraldeetako gobernu sistemekin eta monarkia hispanikoarekin alderatuta*¹³”, eta Arabaren foru garapenarekin batera bere eskuduntzak areagotzen joan zen. Kargua 1876ko uztailaren 21eko Legearen bidez sistema tradizionala deuseztatu zen arte mantendu zen.

¹³ PORRES, Rosario. “De la Hermandad a la Provincia (S.XVI-XVIII)”. Hemen: “Historia de Álava”. Zuzendaria: Antonio Rivera. Donostia: Editorial Nerea, 2003. 185-304 orr.